NAFARROA BERRIZ ALTXA!
1521 2021
SOBERANÍA ES LIBERTAD

"Gu gaurko euskaldunok, gure aitasoen illezkorren oroipenean bildu gera emen gure legea gorde nai degula erakusteko". Gamazadaren abaroan 1893an sortu eta hamar urte geroago Foruen Monumentuan zizelkatutako hitz hauek XX. mende nahasia bizi izan zuten eta XXI. mende hasiera nahasi honi hasiera eman dioten nafar belaunaldi ezberdinei oroitarazi diete promesa xingle bat, haien antzinako hizkuntzan idatzitako esaldi soil horretan jasotako promesa. Gu, gaurko euskaldunok, hemen bildu gara gure askatasunak babestu nahi ditugula adierazteko. Promesa sakon bezain xume bat, mende luze honetan ziklikoki berritu duguna, eta behin eta berriro berritzen jarraituko duguna desira horrek bere baitan konteniturik duen borondatea egia bihurtu arte.

Nafarrok matxinoak gara, gure izaera menderakaitza da eta gure izatea independentea. Izan dugun bidegurutze historiko orotan ezin konkistatuzko gure subiranotasuna azaldu dugu gure ekintzen eta borroken bidez eta sortzetiko errebeldia horrek, fosilduta egotetik urrun, bizi dugun orainaldi honetaraino ekarri du nafar herria. Iragandako aro ezberdinetan bezala, azken mende erdi honetan zehar nafarrok gure kale, lantegi eta eskoletan borrokatu dugu NATOren aurka, errepublikaren alde, abortuarengatik, gure hizkuntza defendatzearren, armaden aurka, feminismoaren alde edo zigortutako gure anai-arreben askatasunarengatik.

Orain dela bostehun urte, Nafarroa bere subiranotasunaren alde matxinatu zen, ez soilik 1521eko ekainaren 30ean Noaingo zelaietan zeuden espainiar tropen aurrean, baizik eta aurreko hilabeteetan, herriz herri eta auzoz auzo, Amaiurko gazteluan urtebete beranduagora arte iraun zuen erresistentzia-izpiritu batekin. Askatasun oihu horren oihartzunak mendez-mende dirau eta, gaur egun, gure artean darrai.

Geroztik, Nafarroa mila eta bat aldiz altxatu da bere herritarren, izaeraren eta bizitza ulertzeko duen moduaren alde, eta 500 urtetik gora dirauen konkistaren ondoren, oraindik orain, egunero erantzuten diogu oraindik ere Nafarroa Espainiaren kide izateko proiektuari. Noaindik Gamazadara, Amaiurtik Trantsiziora, XX. mendearen zatirik handienean Nafarroako PSOE ere barne hartzen duten gure gizarteko sektore zabalek Espainiako Erresumaren eredu probintzial edo autonomikoa arbuiatu dute, gure jauntxoen eliteek espainiar monarkia ustelari onarpen triste eta geroz eta bakartiago bat ematen dioten arren, Nafarroa ez baita ez orain ez inoiz Espainia izan eta ez da sekula izango.

Estatuak gaur egun pairatzen duen goitik beherako krisiak areagotu baino ez ditu egiten pandemia honen ondorio humano, sozial eta ekonomiko latzak, eta politika publikoak gehiengoaren zerbitzura jartzeko eta eredu sozial eta ekonomiko bidezkoagoa eraikitzeko gai diren lanabes bakarrak eskuratzera behartzen gaitu, baliabide politiko eratzaileak: Nafarroa berdinzaleagoa, inklusiboagoa, feministagoa, euskaltzaleagoa, berdeagoa, solidarioagoa eta, azken batean, maila guztietan, burujabeagoa lortzeko. Memoria borondate bihurtzeko unea heldu da eta berau errespetatua izan dadin behingoz; beren etorkizunarenjabe bakarrak diren nafarrek askatasunez eta subiranotasunez adostu eta gauzatu dezaten.

Horregatik, gaur, hemen bildu garen herritarrok, gure izenean eta joan diren gizaldien izenean dei egin nahi diegu gaur gure anai-arrebei, beren ideologia, sinesmen, jatorri edo kondizioaren gainetik, berriro ere elkarrekin altxa gaitezen gure subiranotasunaren alde, hori baita Nafarroa justu eta aske baten lanabes eta seaska bakarra.